

ALTUNAREN TXOSTENARI SARRERA

Donostia, 1988-XII-30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzain adiskideok:

Joan den Maiatzaren 20an Argitalpen batzordeko bilera bat izan genuen, ohiz kanpoko, eta ene ustez aski gogoangarria izan zena. Gaia zen **Euskera** aldizkariaren birmoldaketaz. Probetxuzkoa izan zen batzarre hura batez ere gure egoeraren azterketa izan zelako. Bertan esan zen **Euskera** aldizkaria maila-beheititze bat jasaiten ari dela, bertan agertzen diren lanak askotan hala-holakoak direlako, noski. Gero galdetu zen ea non egon zitekeen gaitz horren erroa, eta erantzuna hau izan zen: hilereoko gure batzarreetan aurkezten diren gure txostenak ere ahulezia berberaz joak egotea.

Eta erremedio bezala proposatu zen euskaltzain osoei, abezeko ordena segituz, gure batzarreetarako txosten bana eskatzea.

Egia esan, Urriko batzarrean Joxe Miel Barandiaranen txostenarekin pentsatzen genuen txosten-erronda berri honi hasiera ematea, baina ustegabeen huts egin zigun, eta Abendurako utzi behar izan da errondaren hastea.

Alde batetik hobe, zeren abezeko ordenan lehenago baita A, B baino, Altuna Barandiaran baino.

Beraz, zerorrek, Altuna, duzu hitza. Eta eskerrik asko.

EUSKAL FILOLOGIAZKOAK, NAHAS-MAHAS

Donostia, 1988-XII-30

Patxi Altuna

1. Hamabi urte igaro dira iadanik Euskal Filologia ikaskuntzak sortu eta lehen ikasleei inoiz ikasi gabe genituen —sistematikoki bederen— ikasgaiak zabu-zabuka irakasten hasi ginenetik. Balekite zenbat estuasun eta larridura pasa genuen! Aurreneko labealdi haietako ikasleek gauza handirik ikasi zuten gugandik ez dakit; guk haien bizkarretik eta haien pazientziari eskerrak artean ez genekien hamaika gauza ikasi genuela, bai. Oraindik ere ateratzen zaigu han-hemenka puntu ilunik aski eta, argibide bila nora jo ez dakigularik, ikasleen izkutuan gordetzen ditugu, haien aurrean farregarri ez gelditzearren. Nori bere azturak erakusten dio ondona eta neri, autore zaharren liburu artean ibiltzen bainaiz gehienbat, ondotoxo erakutsi dit beste gauza gehiagoren artean bat: behin eta berriz irakurria eta alde guztietatik ustez ongi miatua eta barrendua dudan testua, hurrengo ikasturtean berriro eskolan azaltzeko prestatzerakoan, erbia sastraka artetik bezala ateratzen zaidala ustekabea adizki zahar bat, esapide lehen ongi ulertu uste nuen bat, esaldi nahasi eta luze baten balio izkutu bat, edo beste zerbait, aurreko irakurraldi guztietan erreparatu ez nuena. Besteren hizkera, izan ere —eta hemen “besteren” izateak norberaren hizkuntza bera baizik ez du esan nahi, baina beste garaikoa, beste euskalkikoa— osin bat da, zeinen hondora ez baikara sekula iristen, hizkera delako pertsonaren barrenengo izatearen eta pentsabidearen errainua. Alde honetatik umilki aitortu behar dugu idazle zaharren liburuen azterlanean oraindik pix-oihaletan edo troxatan aurkitzen garela, gehien edizio kritiko zehatzak falta baititugu ikasleentzat eta irakasleentzat. Eta nahi duenak nahi duena esango du, auzoan eta Euskaltzaindiaren baitan, baina ni honetan Mitxelenaren iritzi bereko naiz: “*fac-simileak* nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen” (1).

(1) *Mitxelenaren euskal idazlan guztiak* (MEIG), IV, 113. or.

Hori gainera ez da gure artean filologiaren kaltetan bakarrik gertatzen, hizkuntzalaritzarenean ere bai, egungo eguneko hizkera, ahozkoa eta idatzia, bakarrik ikerturik nekez —hain nekez ere— aurkituko baititugu beste esapide ezezagun eta forma inoiz entzungabe haiek eta horrenbestez euskal hizkuntzalaritzak espikatu ez ezik, planteatu ere egin ez dituenak. Eta aitortu behar da horrelakoak han-hemenka agertzen direla liburu zaharretan. Lafonek, esate baterako, XVI. mendeko testuetako euskal aditza ikertu zuelarik eta ez XVII. mendekoetakoa, ez dauka jasorik bere “Système”-an Ziburuko Etxeberriren zenbait adizki, aurreko mendeko autoreetan agertzen ez denik.

Nik gaur urte hauetan bidera atera zaizkidan bitxi politetatik hiruzpalau eskainiko dizkizuet, beste batzu beste baterako utzirik, mintzaldi hau luzea ez ezik arras aspergarria gerta ez dakizuen, horrelako gaiak ez baitira inor lilura dezaketena izaten eta eskolarako aproposagoak baitira hitzaldi baterako baino.

2. Tartasen pasarte bat oker irakurtzen ez badut —eta mila bider neure gogoan irauli ondoren iritxi naiz irakurketa honetara, gainerakoek pasarte hori guztiz ulerkaitz bihurtzen baitzidaten—, OEH-k Pierre d’Urteren hiztegian, 1725ean, lehen aldiz agertzen dela dioen hitz bati 59 urte —gutxienez— gehiagoko eta lehenagoko bizitza aitortu beharrean gaude. Honela dio Tartasek bere *Onsa hilceco bidia-n Gomendiosco lettra* deriztan hasierako atalean:

“Ezta hil Tristand d’Urtubie eta Clemant de Moneins çuré aita eta aita handien memoria.”

Neretzat ez da dudarik horko “aita eta aita” hori OEH-k *aitaita* formaz, eta bestez noski, dakarren berbera dela. Ezin daiteke beste inola perpaus hori ongi itzul, ez adi. Tristand eta Clemant dira aitaita handiak. Horrenbestez hitz hori osoagorik eta 59 urtez zaharragoturik ez ezik, Zuberoako hizkeraz ere testifikaturik dugu. Eta, gainera, forma horrezaz hor bakarrik, nik dakidala, euskal literatura osoan. *Hapax* genuke, alegia.

3. Euskal literatura osoan *hapax* zela bere ustez esan ohi zuen Mitxelenak San Inazioaren martxako “*naiz betor Luzifer deabrua...*” delako hura ere, kontzesiboa noski, *na(h)iz* batetik eta agintezko adizki soil-garbia bestetik, ia ezkon ezinak diruditenak, elkarrekin uztartzen dituena. Ernaniko Iturriagak egina da martxa horren letra, dakizuenen, eta harritzekoa zen nola asma zezakeen eta non ikas hemeretzigarren mendeko idazle batek lehen sekulan agertzen ez zen esapide hori. Orain badakigu ez dela erabat *hapax*, kidea aurkitu uste baitiogu. Eta kidea aurkitu nik neronek eta, zer esanik ez, Mitxelenak eta zuetako anitzek behin baino gehiagotan irakurria —nola ezik!— genuen autorean eta liburuan: Ziburuko Etxeberriren *Manual*-ean. Honela dio 1406garren bertsoan:

*“Nahiz biz hala licela erran duquen guztia
Escribiën borrateco nigar bat duc asquia,
Ecen hain duc Iaincoaren mansotasun handia.”*

Biz hori izan aditzaren agintezko 3. pertsona, Iturriagaren *betor*-en gisakoa, dela ez da dudarik. Bada haatik dudarik zein datekeen *biz* horren eta *licela*-ren arteko syntaxizko lotura. Puntu honetan gehiegi luzatu gabe, bi gauza esango dut: bat, Etxeberri bestetan erabiltzen du *licela* ere balio kontzesiboarekin (ikus vv. 1238, 1243), gure *datorrela* ere-ren arras antzeko, eta gehienetan *balitz* ere esan ohi dugunaren baliokide, eta badirudi lapurteraz aski zabaldua zela —ez dakit gaur ere hala den—, Haranederrek ere bai baitarabil (“...hura gucia emanen darotçut, *licela* ere ene erresumaren erdia”, Marc. VI, 23) eta gauza bera da apika Egiategi zuberotarrak beherago aipatuko dudan hamalaukoan dioen *lissan* ere. Hori bat. Bestea, *biz*-en eta *licela*-ren arteko loturari dihoakionez, eta gezurra dirudikeen arren *izan* aditzak bere mendean konpletiborik eramatea, nik ez dut argibide hoberik aurkitzen eta bizkitartean daukat konpletiboa dela. Hori neretzat gaztelerazko “Aún siendo que (= aún dado que, aún supuesto que) así fuera” da hitzez hitz. Baina guzti honezaz zernahi ere den, *naiz betor*-ek badu gaurdanik bixkirik.

4. “Iritzi” aditza *nor-nori-nork* erakoa dela irakatsi izan da beti gure gramatiketan eta *iritzi* dut bezalako formak nekez jasan ditzakete gure belarriek, dirudienez. Beste testigantza bila ibili ordez, eskuarteant ditudan Mitxelenaren paper zaharretatik jasoko ditut hor irakurtzen ditudan hitzok: “*deitzan, deitzot, deitxot*, etc., están por *deri*-: lo característico en vizc. es *-tx-*, mejor que *-tz-*. El part. vizc. ant. era siempre *eretxi*, frente a *eritzi* en otras zonas. Tenga en cuenta, aunque lo habrá visto ya, que es verbo trans. que lleva siempre obj. ind. (normalmente *-o-* de 3.^a pers.) y que significa tanto ‘tener por (lat. *putare*, etc.)’ como ‘llamarse’...”.

Hala al da, ordea, beti eta nahitaez? Irakurriko dizuedan euskal testua Mitxelenarena berarena da eta honek irakasten digu —irakatsi behar liguke— gure teoria-usteak bat direla maiz eta gure praktika-azturak bi. Begira zer idatzi zuen 1955ean eginiko film baten kritikan: “Besten aburuak beste, goazen gauzei apur batez geure begiz, betaurrekorik gabe, begiratzera. Egunean eguneango kritikak, nork nahi daki hori, *ez du zuzen irizten* askotan, ez gehienetan ere beharbada” (2).

Erantzuna edo arrazoia, nahi duzue, erraza da eta nornahiri bururatuko zaio: “hor *iritzi*-k ez du ez ‘tener por’ ez eta ‘llamarse’ esan nahi”. Noski, baina zergatik irakatsi izan dugu beti, hortaz, *nor-nori-nork* motakoa dela beti eta ez bereizketa egin: *A* esan nahi duenean, bai eta *B* esan

(2) MEIG, I, 135. or.

nahi duenean, ez? Gainera *ez du irizten* perifrasiak da eta ezin zitekeen, horren ordez forma sintetikoa erabil, hau nahitaez *nor-nori-nork* erakoa baita.

5. *Nor-nori-nork* erako adizkiak direla eta, Haranederren esaldi bitxi batzu datozkit gogora. Iparraldekoek dute hitza, ea bere euskalkian bitxi diren ala ez, gurean bai segurki. Entzun itzazue honako hauek, haren *Itun Berritik* hartuak:

“Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: ecin daguique Semeac deussere bere ganic; ez du eguiten Aitari eguiten icusten dioena baicen” (Jo. V, 19).

“...aspalditic hura icussi nahia cen, ceren hainitz gauça aditu baitcituen hartaz erraten eta esperantça baitçuen icussico cioela cembait miracuillu eguiten” (Lk. XXIII, 8).

Horko “Aitari eguiten icusten dio-” eta “icussico cioe(n) eguiten” horiek azpi egituran honako bi perpaus hauek dituzte dudarik gabe:

[norbaitek egin] + [norbait ikusi]

eta ez da inondik nabari nola ager daitekeen azaleko egituran *nori* sintagmarik, Haranederrek ez baitu inoiz esaten “Aitari ikusi diot” edo antzekorik, gaurko zenbait euskaldun hitz totelek bezala.

Beste esaldi hau ere, mendebaldekoen belarriei eskuarki “zuri aditu dizut” esaten dugulako hain mingarri ez zaien arren, goiko bi horien sail berean sartu beharrekoa da lapurtar baten lumatik jalkia delarik, hauek “zu aditu zaitut” esaten baitute, eta Haranederrek ere bai, noski. Ikus, beraz:

“Jauna, norc sinhetxi içan du guri erraten aditu darocutena? (Jo XII, 38) (Errom. X, 16).

Hemen ere azpi egiturako bi perpausak hauek dira:

[guk erran] + [gu aditu]

eta ez, noski, [guri erran], ez baitu esan nahi “guri erran” digutela: guk erran dugu eta haiek aditu. Nondik ageri da, beraz, *nori* sintagma azaleko egituran? Gaskoinaren edo eragina ote?

Ikus nola itzuli zituen, aldiz, hiru pasarte horiek Leizarragak eta nola diren latinez:

“Eguiaz eguiaz erraiten drauçuet, ecin daidi Semeac bere buruz deus, *erran nahi da*, baldin ikussi ezpadu Aitá obratzen” (Jo. V, 19) (“...quidquam, nisi quod viderit Patrem facientem”).

“...ecen aspaldi çuela, haren ikusteco desira çuen, ceren anhitz gauça ençuten baitzuen harçaz: eta sperança çuen cembeit signo ikussiren çuela harçaz eguiten” (Lk. XXIII, 8) (“et sperabat signum aliquod videre ab eo fieri”).

“Jauna, norc sinhetsi vkan du gure hitza, eta...?” (Jo, XII, 38) (“Domine, quis credidit auditui nostro”?).

Bistan da Leizarragak latinezko —eta gerkerazko— testua ez duela justuki eta hitzez hitz eman, aldaturik baizik, nahiz zentzu orokorra ongi gorderik, lehenean eta hirugarrenean; eta “harçaz eguiten” pasibo gisa erabilirik bigarrenean.

Horien datibo bitxi hori agertzen ere zaigu, beste arrazoi bategatik noski, badaezpadako pasarte hauetan:

“Eadem quippe mensura, qua mensi fueritis, remetietur vobis” (Lk. VI, 38).

Haranederrek: “...ecen cebonec neurthuco duçuen neurri beraz neurthuco çaitçue”.

Leizarragak: “...ecen neurtzen duçuen neurri beraz, neurturen çaitçue çuey-ere aldiz”.

“In qua mensura mensi fueritis, remetietur vobis” (Mk. IV, 24).

Haranederrek: “...cer ere neurritz neurthu baidiequeçue bertcei, eta neurri beraz neurthuco çaitçue cebei ere”.

Leizarragak: “...cer neurritz neurturen baituçue, neurturen çaitçue”.

Hemen latinak eragin die biei, dirudienez, datibo hori —*zuei neurtu*— erabiltzera, “vobis remetietur” haren guztiz antzera: bigarren testuan, halere, Markosenean, Leizarragaren “neurturen baituçue”-ri Haranederren “neurthu baidiequeçue bertcei”-ri baino hobe irizten diogu, hau esatera ez baitu latinak bortxatu.

6. Zenbait sintagma inesiboren balio kontzesiboa ez dakit inongo gramatikatan jasoa dagoen, Euskaltzaindiaren beraren orainengoan ere ez, oso oker ez banago. Han irakurtzen dugu: “Biziki produktiboa gertatu zaio hizkuntzari kasu inesiboaren *-n* atzizki hau” (3). Eta aipatzen da lekua, denbora, iharduera, modua adieraz ditzakeela. Halere beste hau itzuri zitzaigun. Mitxelenak hain usu erabiltzen zituen “bere txikian”, “bere exkaxean”, “bere laburrean”, “bere nagian eta ustelean” eta abar ditut gogoan. Ia beti *bere* dute lehen osagaia eta bigarrena, berriz, konnotazio txarra eta gutxigarria berekin duen adjetibo bat, hau inesiboan joaten delarik, noski. Agian bigarren hau horrelakoa izatea ez da beha-

(3) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*, 358. or.

rrezko, “bere handikerian ez da lorea bezain ederki jazten” ere esan baitaiteke, baina *handikeria* ere ez ote da konnotazio txarrekoa, *-keria* atzizkiak erakusten duenez? Balio kontzesiboa dutela diot, “bere txikitasuna gorabehera” eta abar parafrasea baitaitezke. Gaztelerazko “en (medio de) su pequeñez” (= “pese a su..”) eta antzekoen kutsua dutela? Eta zer?

7. CiriQuiain Gaiztarro jaunak 1961ean *Los vascos en la pesca de la ballena* argitaratu zuen eta Mitxelenak urte bereko EGANen (4) liburu horren iritzia eman. Liburu egileak ezin isil zitzakeen, gaia zena zelarik, Ziburuko Etxeberri bere *Manual Devotionezcoaren* bigarren zatiaren “Itsasoco biayetaco othoitcen araldea” delakoan arrantzaleentzat eta konkretuki “Balea çaleençat” paratu zituen bertsoak. Mitxelenak iritzia ematera-koan hortik hizpidea harturik, agerian ipintzen du nola Ziburuko Etxeberri ezin hobeki berezten dituen itsasontziko hiru kargu hauek: “burjesa” edo ontzi jabea, “buruzagia” edo patroia eta azkenik “pilotua”; eta gero honela dio: “Eta Etxeberri ziburutarra aipatu dudanez gero, egileak 20gn. orrialdean dakartzan bi bertso aldatuko ditut hona “Balea hill ondoco esquerrac” deritzan zatitik hartuak:

Ecen çure baithan tturroñ batec etsaja (sic!)

Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.

Zer esan nahi ote dute?”, galdegiten zuen ondoren Mitxelenak. “CiriQuiain jaunak galdatu zidanean, ez nuen jakin zer esan eta orain ere lehengoan nago. Inork garbituko ote lituzke?”.

Inork ez zituen nonbait garbitu —saiatu bai, garbitu ez, gero esango digunez—, bada hamasei urte geroago “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak” deritzan artikuluan (5) berriz ere bertso horietara itzultzen da, bestek eskaini ez zion argitasuna berak aurkitu nahirik; alferrik ordea, ia lehengo egoeran utzi baitzuen auzia. Honela zioen bigarren artikuluan honetan: “Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-ak badu zatitxo bat, balearen arrantza dela eta nahikoa eta gehiegi nahasia... Cfr. *Manual Devotionezcoa*, Bordelen 1969, 156, bertso pare hau, batez ere, “Balea hill ondoco eskuerra deritzan otoitzean” —eta berriz aldatzen ditu bi bertsoak, puntu txiki batean lehen ez bezala, ordea—:

Ecen çure baithan tturroñ batec etsajac (sic!)

Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.

“Ez da hitz kontu soila”, dio gero, “bestetan ageri ez den *hangaja*-rena batez ere. Bertsoa bera makur dabil. Lehen lerroan bi silabako hitza falta du, *ecen* eta *çure baithan*-en bitartean zihokoena. Bigarrenaren

(4) MEIG, III, 58. or.

(5) MEIG, IV, 77. or.

hutsa aisekiago senda daiteke, *vrutic*-en ordez *vrutitic* irakurtzearekin. Hain arrunta den haplografia genuke beste hainbestetan bezala, errudun bakar. Badakit Don Manuel Lekuona eta Justo Garate saiatu direla, nor bere aldetik, okerrak zuzentzen, baina saio horiek ez naute asebetetzen, kontentagaitzegia naizelako agian. Ez genuke, noski, horrela ibili beharrik *Manual*-aren beste edizioen bat ezagun bagenu, nik behintzat ezagutzen ez dudana. Lehenbizikoak Axular eta Guillentena izan zituen “*examinatzaile*” 1626an”. Honaino Mitxelenak dioena.

Entzun dezagun otoitz osoa:

Iauna, ditutçula esquer eta laudorioa
 Million eta million baño guehiagoac,
 Ceren eguin darocuçun liberalqui gratia
 Idequitceco handien arrañari bicia.
 Gure indarrac etciren deus hunenen aldean,
 çure fauorea dugu sentitu combatean,
Ecen çure baithan tturroñ batec etsajac
Vrutic ici deçan nahiz dela hangaja.
 Hala guri ere eguin darocuçu dohaña
 Ventçutceco itsassoan den sendoen arraña.
 Lehorrera dakharquegu eguinic sarrasquia
 Bici cela aztaparraz cebillan ihicia.
 Hala dugu naturaren miraculluz bazterra
 Ohoratcen, Iongoicoa, çuc ducula esquierda.

Aurrera baino lehen galde diezaiogun geure buruari zerk galerazten zion Mitxelenari bi bertso horien zentzua atzematea, aski sineskaitza baita, hitz bat izan ezik gainerako guziak aditzen zituenez gero. Lehen lerroak falta duen bi silabako hitza gorabehera, aise aditzen da zer esan nahi duen: “Pues en tu presencia un ratoncito a los enemigos...”. Bigarrenaren lehen hitza *vrutitic* baldin bada, azkena bakarrik du ezezaguna; eta ezin itzul, halere, horko *nahiz* horrek hasera ematen dion kontzesiboraino bederen? Gezurra dirudi, baina hala da. Erraza dirudi itzultzen, baina ez da eta zailtasuna, ene ustez, *ici deçan* horretan datza Mitxelentzat. Bai ote? Ondo garbi dago zer den *ici deçan!* Bai, baina ez.

Gatozen lehenera. Justo Garateren saioa ezin aurkitu izan dut eta zuetakoren batek ezagutzen badu eta non dagoen esaten badit, bihotzez eskertuko diot. Don Manuel Lekuonaren proposamena (6), Mitxelenak

(6) LEKUONA'tar Manuel: *Idazlan guztiak*, 8. *Euskeralojia*, 452. or. Ene deia entzun eta Patxi Urkizu adiskideak ekarri dit —eskerrik asko— Justo Garaterena (BRSVAP, 1963, 281-282. or). Honen iritzia jakinerazteko aski da proposatzen duen itzulpena hemen ezartzea:

“Pues en tu casa un turón al enemigo,
 desde lejos lo atemoriza, deseando sea comestible”.

Mitxelenaren sinezkaiztasunak bazuen zergatik!

gogoko izan ez zuena, hau da: a) lehen lerroak bi silabako hitza falta du —hau Lekuonak idatzi zuen lehenik— eta hitz hori *nola* juntagailu konparatiboa da; beraz bertsoaren lehen hemistikioa “Ecen nola çure baithan...” zen, Lekuonaren ustez. b) Bigarren lerroak ere silaba bat eskas du eta *hal* falta du; hots “*ici hal deçan*” behar luke izan. c) *Vrrutic* dioen lekuan *urruric* behar luke, hots “*gratuitamente, sin motivo*”. d) Azkenik *hangaja* zer den ez daki, “a cuya averiguación habremos de renunciar por hoy”.

Mitxelenak ez diosku damurik zerk ez duen lau puntu hauetatik asebetetzen eta zerk bai, baina garbi dago Lekuonaren *nola* lehen lerroan ez duela maite, ez baitu aipatzen ere, baizik soilik idazten “lehen lerroan bi silabako hitza falta da, *ecen* eta *çure baithan*-en bitartean zihoakeena”, *nola* aintzakotzat hartu ere gabe. Gero ikusiko dugu ezin har zezakeela. Bigarren lerroak falta omen duen *hal* ere ez du Mitxelenak gogoko, hori esaten ez duen arren *vrrutitic* proposatzen baitu *vrrutic*-en ordez, *hal*-entzat lekurik utzi gabe, ez eta ez du ere, beraz, Lekuonak nahi lukeen *urruric* maite. Azkenik *hangaja*-rentzat ez dute argibiderik batak ez besteak.

Nik gaur dakarkizuedan bi bertso horien irakurketa berria beranduxko dator Mitxelenari atsegin izango zitzaion ala ez jakiteko, baina kontent izango naiz baldin zuei hala bazaizue. Hona hemen.

Lehen lerroak bi silabako hitza falta duela eta *ecen*-en eta *çure baithan*-en artean falta, hain zuzen, hori garbi dago bientzat. Neretzat ere bai. Hitz hori Mitxelenaren ustez, ez eta nerez, ez da *nola*. *Nola* izango da, bada? Ohar zaitezte ondoko adizkia —Lekuonak *ici hal deçan* suposatzen duena— juntagailu horren mende gelditzen dela. Orain bada, zer da euskaraz *Ecen nola... ici hal deçan*. Eta ez bakarrik *hal* gabe Etxeberrik *ahal* esango zukeelako, baizik gainera eta batez ere *nola* konparatiboa eta *deçan* subjuntiboa —“Así como... puede espantar” itzultzen du Lekuonak berak— ezina delako. Hor falta den bi silabako hitza zein den garbi dago, ene ustez, eta otoitzak berak erakusten du. Ohartzen bagara *çure baithan* dioela eta otoitz guztia hasierako *Iauna*-tik dagoela dindilika eta hari zuzendua, ez dirudi desegokieria hiru lehen distikoen ondoren berriro *launa* errepikatzea, ondoko beste hiruren ondoren ere *launa* ez baina *longoicoa* baitio berriro azken distikoan. Hori batetik. Bestetik otoitz horren aurreko eta ondoko ehun bertsoan bila ibili eta lau aurkitu ditut honela hasten direnak: “Hala, *launa*,...”, “Bañan, *launa*...” —azken hau bi bider— eta honako beste hau gurearen txit antzekoa: “Çure baithan dugu, *launa*,...”. Beraz ez deritzat desegoki “Ecen, *launa*, çure baithan...” dela suposatzeari lehen lerroaren lehen hemistikioa.

Eta bigarrenarena? Lekuonaren *Vrruric ici hal deçan* ez nahi eta *vrrutitic* proposatu du Mitxelenak, adizkia zein izan daitekeen esan gabe, ordea, eta isiltzeaz beraz *ici deçan* gogoko ez duela aski garbi adieraziz.

Diodan lehenik, nahiz hau txikieria den, izatekotan *vrruititic* beharko lukeela izan, ez *vrutitic*, Ziburuko Etxeberrrik darabiltzanak *urrun* eta *urruiti* baitira —*vruitian*, *vruitira*, *vruiticotara* eta *vruiiti* bera soila aurkitu ditut han-hemen—. Baina hori, esan bezala, huseria da eta *vruititic* onartzeko debekurik ez luke Mitxelenak. Nik bai, ordea. Izan al daiteke, izan ere, horrela? Adizkia zein den erabaki behar dugu lehenik eta adizkiak Mitxelenak ez digu zipitzik esaten. Horrez gain, ez digu —berriro diot— lerro eta erdi horren itzulpenik eman, adizkia makur eta eri ikusten duelako, ene ustez.

Eta badu zergatik. Nola izan daiteke *ici deçan* zuzen, izan ere, osagarri zuzena edo objetua *etsajac* delarik, eta ez *etsaja*, Lekuonak azken hau eman zigun arren, eta Mitxelenak berak ere bai hamasei urte lehenago, testua “zuzendu” nahirik eta objetua adizkiaren moldera berri- turik adizkia objetuaren moldera berriro eta zuzendu beharrean? *Etsajac* baitzegoen zuzen eta *deçan* oker, eta ez atzekoz aurrera; *deçan* behar zen zuzendu eta *etsajac* bere hartan utzi, bigarren artikuluan Mitxelenak egin zuen gisan. Bi lerro horietan ezer garbi badago, hauxe baitago: makurrak, txikiak edo handiak, bertsoen lehen hemistikioan daudela, ez bigarre- nean. *Etsajac* ongi dago, beraz, eta *deçan* gaizki; *deçan* behar du gutxie- nez Etxeberriren hizkeran.

Baina horrenbestez gutxi irabazi dugu. Zer da, izan ere, *ecen ...ici deçan*? Lehen bezain subjuntibo da *deçan* eta lehen *nola*-rekin bezain gaizki ezkontzen da orain *ecen*-ekin. Juntagailu hau, guztiok dakigunez, konpletiboa izan daiteke, nahiz kontsekutiboa (*hain...*, *ezen...*), nahiz kom- paratiboa (*...ederrago ecen ez...*), nahiz kausal-esplikatiboa, baina zeinnahi balio duelarik nekez aurkituko dugu adizkia subjuntiboan duelarik, are gutxiago baldin bere balioa, pasarte honetan bezala, kausal-esplikatiboa bada. Horiek horrela direla *deçan* ez baina *deçaque* zor zaio, ene ustez, bertso horri eta, Lekuonak *hal* eskatzen zuela oroiturik —eta “puede espantar” itzultzen—, aitortu behar ez zebilela guztiz oker. Horrenbestez bertsoak lehen hemistikioan exkax zuen silaba irabazi baitugu *deçan*-en lekuan *deçaque* onarturik, ez dut gehiago Mitxelenaren *vrruititic* beha- rrezkotzat jotzen eta Lekuonaren *vruric*-en aldeko naiz; eta hala nintzen, egia esan, Lekuonaren artikulua duela egun batzu ezagutu baino lehen ere.

Hona, beraz, nola atera ziren bi lerro horiek Etxeberriren lumatik, ene ustez:

*Ecen, Iauna, çure baithan tturroñ batec etsajac
Vruric ici deçaque, nahiz dela hangaja.*

Eta zer esan nahi dute? Edozeini egingo zaio harrigarri, neri ere bai hasieran, zer arraio egiten duen hor, itsasoan eta baleen artean, *tturroñ* batek, arratoin txiki batek, alegia. Ez da hori segurki arratoinen bizitokia.

Gero ohartu nintzen bi lerro horiek inondik ere metafora bat edo, nahiago baduzue, aipamen izkutu bat zirela, antzinateko —Greziako nahiz Erromako— idazleek maiz goratu izan zuten arratoinen edozer gauza desegiteko eta edozein jende ikaratzeko ahalmen galgarriaren oihartzuna. Hona zer dioen Pliniok, adibidez: “Plurimi (mures) ita ad Troada prove-niunt et iam inde fugaverunt incolas”(7). Eta beste pasarte batean, Teo-frastok lehenago kontatua bere eginik: “Theophrastus auctor est in Gyara insula, cum incolas fugaverint, ferrum quoque rosisse eos (mures)”(8). Ezagunagoa da, noski, Biblian ere agertzen den Senakerib erregeaz Hero-dotok kontatzen duena: nola eraso omen zuen Egiptoko erregea eta honek Vulkano jainkoari laguntza eskatu; nola gau berean arratoin samal-da bat oldartu zen asiriarren etzalekuetara eta hauen erredolen hedeak eta gezien sokak marruskatu zituzten, eta nola biharamon goizean izki-luez ezin baliatuak ihesari eman zioten.

Hortaz zer? Zer esan nahi dute bi lerro horiek? Hitz bat gelditzen da oraindik itzulpena pixka bat, ez asko, galerazten duena eta Mitxelenak ez Lekuonak argitu ez digutena: *hangaja*. Ez da zer pentsa gaizki idatzia dagoenik, bi lerro horien hutsak eta okerrak, esan bezala, hasieran bai-taude, ez bukaeran. Bestalde, bai Mitxelenak lehen aldiari eta bai Lekuonak gero, aldatu zuten bezala testuak lehen lerroan *etsaja* balio, ezin jakin genezakeen segurantz osoz nori zegokion *hangaja* izatea, tturroi-nari ala etsaiari. *Etsajac* dio, ordea, pluralean, eta hainbestez badakigu tturroina dela *hangaja*. Diodan bidenabar *etsajac* / *hangaja* bertsoaren bukaeran, *-jac* eta *-ja* puntuan ditugularik, guztiz ohizkoa dela Etxeberri-gan —eta Oihenart kendurik gainerako guztiengan—, hor bertako *laudo-rioa* / *guehiagoac* bikoteak berak irakasten digunez. Zer da, beraz, *hanga-ja*? Lhandek ez dakar hitz hori, itxura horretan berean ez behinik behin; bai ordea *handigai*, *handigei* eta neure buruari galdegiten diot, fonetikako legeren bat gorabehera, gure *hangai* ez ote den beste horren laburdura. *Handigai*-ri Lhandek ematen dion esannahia ezin hobeki datorkio gureari pasarte honetan: “de belle venu” esan nahi omen du, hots, xotila, polita, itxura ederrekoa.

Hona azkenik zer esan nahi duten bi lerro horiek ene ustez. “Balea atzemateko gure indarrak ez ziren deus, harenak handiagoak ziren, zure mesedea somatu dugu, Jauna, harekin borrokatzean” kantatu baitu poe-tak aurreko sei bertsoetan, orain konparazio baten bidez hori horrela dela agertu nahi du: “bada zure baitan, Jauna, arratoin txiki batek, xotila izanik ere, aise (dohainik) ikara ditzake etsaiak. Guk bezala; txikiak izanik, arrainik sendoena azpiratu dugu, Zuri eskerrak”.

(7) *Historia Naturalis*, 1. X; LXV.

(8) Hor berean, 1. VIII, LXXXII.

8. Bigarren artikuluko horretan berean dioenez, Mitxelenak ez du ongi aditzen Eztebe Hirigoitik “In laudem authoris” eginiko latinezko zenbait bertsoen zentzu zehatza. Bost distiko dira guztira

IN LAVDEM AVTHORIS

Nuper eras viridi redimitus tempora lauro,
 Sed cedro laurus te veniente fugit.
 Nobilis est laurus, sed quantum sydera vincunt
 Terras, tam cedro laurus et ipsa minor.
 Aequora qui sulcant debent tibi plurima, naues
 Quod tua fecit eis ingeniosa manus.
 Quas furor ingentis Neptuni, saevius et quid
 In gremiis foveant terra fretumque simul
 Non hominum livor mordax abolebit: at ipsae
 Etcheuerri cum nomine semper erunt.

eta hiru lehen distikoak bere paperera aldatu ondoan honela dio Mitxelenak: “Eta honaino, ustez, esan-nahia ongi jaso dut; ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari (jiaoari, trebeari, nahi duzenari). Ontzigile zelarik, ontzigintzan partaide izanik, egin zituelako? Ala, horrezaz landa, ontzigintza nolazpait ere hobetu zuelako?”. Baina goazen aurrerantz esan eta azken bi distikoak kopiatuz gero, honela bukatzen ditu Etxeberriri dihoazkionak: “Besteak beste (eta besteei ez die inork erantzunik eman galdera nik duela hogeit urte egina dudalarik), zergatik eraman behar dute ontziek (*ipsae* ontziak dira, noski) Etxeberriren izena? Hau zutelako jabe eta kito?”.

Nekez aurki dezakegu Etxeberriren bizitza hobeki ezagutu gabe Mitxelenak egiten dituen galderen erantzuna. Guk Hirigoitik dioskuna dakigu soilik. Mitxelenaren galderak berak, ordea, ez dira taxu eta molde berekoak. Lehenik dio: “ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari”. Ez dira ontziak Etxeberriri ezer zor diotenak, itsas gizonak baizik: “Aequora *qui* sulcant...”, eta zor diotena ere –“plurima” Hirigoitiren ustez– zergatik zor dioten poliki ematen du poetak aditzera: “naues quod tua fecit eis ingeniosa manus”; zure esku trebeak, alegia, ontziak egin dizkielako. Mitxelenak gehiago jakin nahi luke, guk ere bai, baina nork erantzun beste galdera horiei? Hirigoitik ez diosku besterik: Etxeberririk ontziak egin dizkie eta itsastariak zordun zaizkio.

Gero beste galdera bat egin du Mitxelenak azkenean: “... zergatik eraman behar dute ontziek (*ipsae* ontziak dira, noski) Etxeberriren izena?”. Zer da Etxeberriren izena eramatea?, galdetzen dut nik neure aldetik, ez baitakit zer galdegin nahiko zuen Mitxelenak, baina Hirigoitik ez dio hori justuki; honek dio soilik harrez gero itsas ontziak Etxeberriri

ren izenarekin batean izango direla: “at ipsae Etcheberri cum nomine semper erunt”; alegia, lapurtarren gogoangarrian ontzigintza beti Etcheberriren izenari lotua geldituko dela, ontzi (berriak?) egin dizkienez gero hango arrantzaleei.

9. Etcheberrik ez zigun, nik dakidala, hamalauko edo sonetorik utzi damurik. Ezagutzen dugun zaharrena Oihenartena da, Zalgizen goratzarretan ondua. Hamalaukoak jatorriz euskarazkoak ez direla esan beharrik ez dago; Italian sortu ziren dirudienez, Berpizkunde garaian. Haiek eta gazteleraazkoak ezagutzen zituen gutxienez Oihenartek, haien erara berea egin zuenean.

Horren goresmenik ez dut hemen egingo, ez baita hori hitz hauen xedea. Hori entzun nahi duenak irakur bitza Mitxelenak idatzi zituen lerro haiek: “Poesia landu honetan Oihenartek utzi zigun alerik bikainena aukeratu behar banu, [...] hamalauko hau bereziko nuke”. Eta beheraxeago: “Ongi merezi du beronen egileak adiskide zenari opa dion ‘erramu-boneta’”.

Ni bestetara noa. Hamalauko horren egitura ezinbestean (?) honelakoa da: lau bertsotako bi ahapaldi eta hiru bertsotako beste bi. Puntua, zer esanik ez, Oihenarten neurtitz guztiena bezalakoa, silaba eta erditakoa. Eskema berriz honelakoa: ABBA / ABBA / CCD / EDE. Hona osorik:

Nabusi lehenek lan berri guzietan
Anhitz elhesari iardiresten dute,
Hatsarrea zeren emaiten baitute,
Zein erdia baita gauza gehienetan.
Ban' are dutenek beteginzarretan
Ezartzen lan hura gehiago bute
Ezen ez eskasik utziten balute,
Ed' urhent-peiturik zenbait eretzetan.
Halakotz hik, Zalgiz, Eskaldun Poeta,
Burura behar duk erramu-boneta,
Zeren, nola baihaiz Parnason gainean
Bederatzi ahizpez maiteki hazia,
Heiek erakatsiz hik, gur' adinean,
Burutar' eman duk bertzek doi-hasia (9).

Zenbat silaba du bertso bakoitzak? Gaztelera, ongi dakizuenez, hamaika behar dute izan noraezean. Oihenarten haiek, aldiz, hamabi dituzte, zenbait bertsok ikusi batera beste kopuru bat dutela diruditen

(9) MITXELENAK (MEIG, V, 56. or.) dakarren eran aldatu dut.

arren; kontutan eduki behar baitira poeta hark beharrezkotzat ezarri zituen sinalefa eta elisio legeak; ezarri eta berak bete, noski. Hala lehen ahapaldian *guzietan* hiru silabatakoa da eta *gehienetan* lautakoa, bietan bokal aurreko *-i-yod* bilakatzen delarik, seigarren bertsoko *gehiago*-an ez bezala; eta berebat hamabigarren bertsoan *-i a-* silaba bakarraz ebaki behar dira. Horrez gain hamalau bertsoek zesura dute erdi-erdian, seigarren silabaren ondoan, alegia.

Hala al dira, ordea, nahitaez euskarazko hamalaudunak? Halakoak izan behar al dute? Geroztik egin direnak halakoak izan al dira? Nik hemen garai eta euskalki desberdinetako bospaseiren berri emango dizuet soilik, euskal hamalaukoari zerbait ebakuntza edo sendakuntza komeni ez ote zaion zeurok ikus dezazuen. Eta har dezagun hasteko Larramendiren *Amalaudún* delako hura —hala izendatu zuen berak—, “Españarren anciñaco hizcuntzan” egina omen dena:

Nor, goi Lenén, izán da, garr-orí
Piztú devaná? ausartzí, edó onegún?
Ausartzí; ordeá fiñ: onets, indardún.
Amodió ausárt zan, ta onésle-ausartzí.
Etzeván aberéc usté egotzí
Zeuré ausartzián cerbait icigún:
Cégocan gustú batí (etzán mindún)
Zuré onegún chingártzen zanari.
Auxé, escutagái zeuré Esposarén,
Garturíc irtén zan ain biciró,
Non arraió batí da berdindú.
Ta chimistá ain beró oní, ceñarén
Polvorác, mirets dánean luzaró,
Balarén indarrá ción fidatú. (10)

Diodan lehenik eskema Oihenartenetik pixka bat aldentzen dela, honena ABBA / ABBA / CDE / CDE baita. Puntua ere bai, Larramendik aski baitu azken bokala (*-í, -ro, -ú*) edota bokala gehi kontsonantea (*-ún, -rén*) hoskide baldin badira. Hori bai, puntua beti azentuduna.

Eta silaben kopurua? Larramendik ez zigun utzi, nik dakidala, bertsoaren silabak kontatzeko legerik; haren bertsoetan gertatzen diren fenomenuetatik atera behar ditugu, hortaz, hark praktikan betetzen zituena, eta lan hau ez du inork egin, nik dakidala. Konkretuki elisio eta sinalefak beti egiten al zituen, Oihenartek bezala, ala Etxeparek eta bertsolariak bezala batzutan bai eta bestetan ez?

(10) Hau ere MITXELENAgandik (MEIG, I, 216. or.) hartu dut.

Hamalau bertsoak ongi begiratuz gero, ohartzen gara hamar silabatakoak direla hiru, eta hamar baizik ezin izan ditzaketanak, gainera, ez baitago lekurik elisio nahiz sinalefarako. Hauek dira: lehena, hamargarrena eta hamaikagarrena. Horrenbestez pentsatu behar dugu gainerakoek ere, besterik dirudien arren, hamar silaba dituztela, hartarako beharrezko diren elisio-sinalefak eginik; eta aitortu beharrean nauzue horiek eginez gero, guztiak hamar silabatako gertatzen direla. Gauza batek harritzen gaitu: herri poetek ez bezala, egin daitezkeen elisio-sinalefa guztiak egiten dituela Larramendik, egitea edo ez egitea poetaren gogara utzi gabe. Beraz Oihenarten legea betetzen du. Ezagutzen al zuen Oihenarten legea ala biak heldu ziren, nor bere aldetik, lege horren ezagutzera eta betetzera, eta hizkuntza erromanikoetan bezala euskal poesia ikasian ere lege bera ezartzera? Ez dakit zer erantzun.

Horrela ikusten dugu bigarren bertsoan *-ná au-* eta *-tzi e-* eta *-dó o-* silaba bakarrean urtzen dituela. Orobat hirugarrenean *-tzi or-*; eta horrez gain *-deá* ere silaba batez ahoskatutik. Laugarrenean berriz *Amodió ausárt* lau silaba baizik ez dira; *-dioau-* batean ahoskatzen du, beraz; *ta -o* eta *-le au-* ere batean. Gauza bera egiten du gainerakoetan, bi azkenekoetan *dánean* bi silabaz eta *ción* silaba batez ebakirik. Fenomeno hau Oihenartengan ere gertatzen da, *joan* eta *zuen*, esate baterako, inoiz bi silabatako eta inoiz bakarreko baitira Mauleongo poetaren neurtitzetan.

Hamar silabatakoak direla esan dut bertso guztiak. Esan dut ere orde, azken silaba azentuduna dutela guziek, guziei ezarri baitie Larramendik berak gainean arrasto txikia. Horrenbestez azken silabak bi balio zituela eta, hamaika silabatakoak egin ote zituen bere ustez? Ez litzateke harritzeko; euskarazko honekin batean utzi zigun gaztelerazkoak hala ditu, noski, eta biek eskema bera dute gainera.

Orain arte esanak gatz-pikor batekin hartu behar dira eta ez erabateko sineskizunak balira bezala. Hamalauko horietan gertatzen dira horiek, baina hamalauko horiek bi baizik ez dira eta ezin ditzakegu horko legeak noranahi zabaldu. Besterik egin izan balute edo guri besterik heldu izan balitzaigu, izan zitezkeen agian bestelako egitura ez, baina bai bestelako eskema, bestelako silaben kopurua eta bestelako —Larramendirenak bederen— silaben konta legez paratuak. Izan zitezkeen, bai, baina guk ezagutzen ditugun bi bakar horiek esan bezalakoak dira. Bi hamalauko eta nork bere eskema, nork bere silaben kopurua!

Har dezagun orain Egiategirena, “huscaldun Etchéco andériari” eskainia. Eskema ezagutzearan inork pentsa ez dezan nik deitu dudala hamalaukoa, baina izatez ez dela, esan behar dizuet berak deritzala “hamalaórduna”. Hamalau bertso ditu, bai, baina zuek esan zinez hamalaukoa —sonetoa, alegia— dei dezakegun. Ikus:

Margaita Laidoré hotzés dut assetzen
 dudano Zouri haren obra eskentzen,
 bere jakinas nahis zu eré jakintu
 bihotzécoac déréitzu heben eskentu.
 Etchen dussula dio, soure sorthu hona
 berséric beré sorthiac eman esteiona
 bihotza diano gorago essiés sorthia
 nontic gutic liroan behardunen athia
 nola eskélégoa lissatekian necaturic
 Lissan eré Lurra hen ppeusias arhinturic
 ari da, nahis celia essarri Lurrian,
 gussiac diradian aberatz goure herrian
 Gor deno berari bérser bethi oro beharri
 honki Eguinéztas datéké hil artio Egarri.

Begi bistan dago distikoz osatu duela hamalaukoa, lehengo beste bien eskema arras aldatuz. Hamalaukotzat jo behar al dugu? Olerkiak hamalau bertso izatea aski bada, bai. Baina aski al da?

Silaben kopuruari nagokiola, badakizue zein maiz gertatzen diren zubereraz bokal erditzeak; *etxia*, *mendia* eta horien antzekoetan, bokal bat beste baten aurrean gertatzen denean, hitzak dirudien baino silaba bat gutxiago izatea, edo bederen izan ahal izatea. Horrek biziki eragozten du edo galerazten silaben kopurua zein den asmatzea. Hamalaurdun honetan gauza bera gertatzen da. Bi lehenbiziko bertsoak, halere, garbi-garbiak dira, esan nahi baita elisio-sinalefarik, ez bokal erditzerik, jasaten ez dutenak. Hobeki esan, bigarrenen *-bra es-* elkar zitezkeen eta batean urtu, baina lehena hamabi silabatakoa baita noraezean, badirudi bigarrena ere kopuru berekotzat jo behar dugula, sinalefa hori bazterturik. Hirugarrena eta laugarrena ere bortzarik gabe ekar daitezke kopuru horretara, aski baita *zwere* eta *bihotzecwac* bi eta lau silabaz ebakitzea. Ondoko zortzietan bortxa handiagoa eragin behar bazaie ere, malgutzen dira nola-hala kopuru horretara. Ez, ordea, bi azkenak, moraleja gisa emanak eta gutxienez hamairu silaba dituztenak.

Bi azkenok herriak egunoroko hizkeran zerabiltzan esaerak edo alegi antzeko beste olerki batetik hartuak dirudite. Bi arrazoigatik: lerro bakoitzak bi zati dituzke, lehen zatia —*Gor deno berari* eta *Honki Eguinéztas*— sei silabatakoak direlarik eta danera hamabi aise gainditzen dituztelarik.

Mitxelenak EGANen (11) argitara zuen transkripzioaz baliatu naiz eta hutsegiteren bat somatu uste bainuen, Diputazioko Liburutegira jo

(11) MEIG, I, 231. or.

nuen fotokopia eske, Mitxelenaren hitz hauetaz fidaturik: “Gipuzkoako Diputazioko Liburutegiak erosi berria du esku izkribu bat, Eguiateguy delako horrena”. Baina nolakoa ez zen izango nere nahigabea, handik erantzun zidatenean zoko guziak ongi miatu zituztela eta han ez zela halako esku izkriburik. Hor aldatu dudan testu horretan bi dira ene dudak, hemen dauden zuberotarrek argi liezazkidaten nahi nituzkeenak: bat, seigarren bertsoko *berséric* hori ez ote da *berséri*; eta bi, zortzigarren bertsoko *gutic* ez ote da *guti*. Hor berean *athia* delakoa ez dakit ez ote den *axia* edo.

Zernahi ere den, ikusten duzue eskema bederen erabat berria dela eta silaben kopurua, bertsorik gehienetan behintzat, Oihenarten hamalaukoko bera den arren, ez dugu Egiategirenean zesurarik aurkitzen beti silaba jakin baten ondoan.

Gatozen mende honetako poetetara. Hiruren hamalauko bana hautatu dut, aski delakoan. Gauza bat aitortuko dizuet, sinetsiko didazuela-koan: hautatu ditudan hirurok ezagutzen nituen lehendik, bai, baina ez nituen inoiz elkarrekin berdindu eta ez ditut neure xederako ongi zetoze-lako hautatu. Ez. Neure xederako ongi zetoze-la orain ohartu naiz, artiku-lu honetarako abespeluan edo iritzira hautatu eta gero, xeheki aztertu ditudanean.

Lizardiren “Yaun errukiorra” deritzana da aurrena. Eskema Larramendirenaren berbera du: hots, ABBA / ABBA / CDE / CDE. Hona:

Txerrenek lardaskatuzko loidi iguingarrian
narras dut gogo: zere iduriz sorturiko
anima garbia; zere eskuek yantziriko
soiñeko zuria... Yauna, ogen egin nuan!

Lor-atsekabe larriak sortu zitun nigan
ogenak; miñago baita eztizkoa baiño.
Beldurrez ninduzun, Yauna, banekialako
tximist-ortzirien yabe zu zeundela goian.

Ta, zure zigorbidezko oiñaztarri larria
usterik, yo dizut begiz ortzia, izu-izuan...
Etzenidan, Yainko on orrek, eguzkia yaurti!
Etxenidan uka ere berorren argia!
Errukizko izpia zeneriodan, artean,
ezin-agortuzko Maitasun-Iturri bizi!... (12)

Puntua ere Larramendirenaren antzekoa du, aski pobrea. Elisio-sinalefak egiteko edo ez egiteko Sabino Aranaren legeei lotzen zaie: hitz

(12) LIZARDI: *Olerkiak*, Erein, 1983, 17. or.

baten azken bokala eta ondokoaren lehena bokal berbera bada edota, desberdina izanik, euskal diptongoa osatzen badute, elisio-sinalefa nahitaez egin behar da; osteraz ezin egin daiteke. Hartara hamalau bertsoak neurri bereko gertatzen dira. Zenbat silabatako? Ez hamabiko, ez hamai-kako, orain arte ikusiak bezala —Egiategi gorabehera—, baizik hamalauko; beraz hamalau bertso olerkiak eta hamalau silaba bertsoak.

Bide batez ohartu zarete ere agian bi hemistikio dituela bertso bakoitzak, zesurak zortzigarren silabaren ondoan zatitzen baititu guziak. Oker esan dut, guziak ez, gezurra badirudi ere; bi azkenetan ez da hori gertatzen. Hauetan seigarren silabaren ondoan dugu pausaldia. Izan al daiteke hori horrela, Lizardi zen bezain forma gordetzailerantz zintzo baten-gan? Bada halaxe da. Azkenik diodan hiru bertsoetan —2., 3. eta 9garrenean— zesuraren lekuan berean gertatzen dela elisio nahiz sinalefa.

Hurrengoa Miranderena da. Mitxelenak oso gogoko zuen eta duela bi urte Deustuko Errebalidan ipini zien Euskal Filologia bukatzera zihozten ikasleei aztertzeko. *Eresi* du titulua. Aski ezaguna da, baina ezagunago izatea merezi luke. *Aineza gal bizia...* hatsbeherapen eginez hasten da lehen ahapaldia. *Ainendi hil...*, oihu sarkorrez jarraitzen da bigarrena. Eta *ainitza gal...*, ikarazko deihadarrez luzatzen hirugarrena. Forma aldetik arreta handiz landua da, eskema lehengo guzietetik aski urrundua duen arren. Hona:

Aineza gal bizia goiz batez
 Iskiludun, ixil eta zutik
 Guduan, lur zahar hunen maitez,
 Mendietan etsaien eskutik.
 Ainendi hil gazterikan, nihaur
 Ikurrinik et' ikurrik gabe,
 Ezpainetan othoitzik ez, burhau
 Itzalik ez, baikor, ez herabe.
 Ainitza gal hats, arima, odol
 Hiretako, ene jainko-eidol
 Zaharra, Lur!, mendi-gudu baten,
 Iguzkiek inguruz inguru
 Nire soin haur, berriz sor haiduru
 Hiretan lo, garrez jo lezaten. (13)

Beraz, eskema orain arte beste inorena ez bezalakoa da: ABAB / CDCD / EEF / GGF. Besteak —Egiategi salbu— bost puntuz baliatu dira; Mirandek zazpi erabili ditu, lehen eta bigarren ahapaldian ez baititu

(13) Yon MIRANDE: *Poemak 1950-1966*, Erein, 81. or.

puntu berberak —bi— gorde, besteek bezala. Horrez gain bertso bakoitzak hamar silaba baizik ez du eta halere zesura dute beti laugarren silabaren ondoan. Elisio-sinalefa hiru lekutan bakarrik egin zezakeen —beste inoiz ez baitira bi bokal elkarren buruz-buru aurkitzen— eta halere ez du hiruretarik behinere egin: ikus 9. bertsoan *-a o-*, eta 10. *-o e-* eta *-o e-* berriz ere. Olerki gehiago azterturik ikusi beharko litzateke baduen ala ez Mirandek legerik elisio-sinalefen gainean.

Azkenik, eta ezinbestean beste asko utzirik, Alfonso Irigoyenen bat dakart, liburua edozein orrialdetan zabaldu eta suertatu zitzaidana (14). *Urratsik urrats* du izena. Hamabi silaba du bertso bakoitzak eta zesura gainera zazpigarren silabaren ondoan. Entzun:

Gogo gurea dago iratzarririk,
haizetara begira gose ta ernai,
izan garen segida izateko zai,
etorkizun sendoa erakarririk.

Europako herri hau ez dago lasai,
ez da nahi ulertu, atsegin ezta,
asaldaturik daude mutil da neska,
andar jotzea noizko galduko da, ai!

Zati bitan mozturik garratza kezka,
Frantziak du erdi bat, Espainiak beste,
egin artean libro zoririk ezta.

Guduaren errotan egun da aste
urratsik urrats goaz luze laburrez,
Euskal Herria beti daukagun gazte.

Bi lehen ahapaldiak elkarrekin erka baditzagu, ohartuko gara aurreko poeta guztien moldea urratzen duela horietan, lehen ahapaldiko puntu bat bigarrenean gorde eta bestea berritu egiten baitu, eskema honen arabera: ABBA/BCCB. Hiru bertsoetako beste bi ahapaldietan silaben kopurua eta zesuraren lekua lehen esanak dira: hamabi eta 7/5, baina puntuari nagokiola ezin diot igerri zer egin nahi izan duen Alfonsok eta nahiago nuke berak gero esango baligu. Hona nondik datozen ene zalantzak: sei bertso horien azken hitzetatik zein dira hoskide? Bat eta hiru —kezka eta ezta— bai, noski; baina beste lauetatik zein da zeinen kide? Konkrétuki zein da *laburrez*-en kide? Seguruenik *beste*, eta orduan eskema DED/FEF litzateke.

(14) IRIGOYEN Alfonso: *Herrian gara bizi*, 75. or.

Begi kolpean ikus ditzazuen sei hamalauko horien elkarren antzeko puntuak eta antzeko ez direnak, hona eskema batean bilduak guztien bereizgarri nagusiak:

	<u>Oihenart</u>	<u>Larramendi</u>	<u>Egiategi</u>	<u>Lizardi</u>	<u>Mirande</u>	<u>Irigoyen</u>
Eskema	ABBA ABBA CCD EDE	ABBA ABBA CDE CDE	Distikoak	ABBA ABBA CDE CDE	ABAB CDCD EEF GGF	ABBA BCCB DED? FEF?
Silaben kopurua:	12 (6-6)	11(?)	12(?)	14 (8-6?)	10 (4-6)	12 (7-5)

Ez al da “demasa” honenbesteko anabasa? Zer esan behar dute noizbaiteko euskal Literatur Prezeptiba edo direlakoek euskal hamalaukoaz, nahasketa horren aurrean? Hamalau bertso dituztela eta hortik aurrera nahi duenak nahi duen eran egin ditzakeela, nori gogoak ematen dion gisa? Hobe genuke arau eta lege eta molde jakin batzu onartu, eta batere onartzekotan molderik zaharrenen aldeko nintzateke ni, Oihenartenen eta Larramendirenen, italierazko eta gaztelerazko jatorritik hurbilen daudelako, besteak beste.